



Fantasia erreflexiboak

Peru Iparragirre

Alexander Martinez Iturriaren *Iraumen* (Algaida, 2019) ipuin-liburuak irabazi zuen LIV. Donostia Hiriko Kutxa Literaturaren modalitatean. Edizioari berari dagozkionak kendu nahiko nituzke gainetik, liburuaren bestelako edukia heldu aurretik. Liburu honen hutsune handienetako bat hori dela esango nuke: edizioa, edo horren falta nabarmena. Hori iruditu zait, behintzat. Ez dakit sariketa baten ondorioz argitaratutako lana denez testua orrazteaz inor aduratu ez delako (justifikazioa ez bada ere) ez den egon edizio lanik, edota argitaletxearen beraren utzi-keriaren (azken buruan erantzukizuna beraiena dela iruditzen zait), baina emaitzak gabezia nabarmenak dituela uste dut. Saria merezi baldin bazuen, Martinezen

lanak mimo apur bat ere mereziko zuten, ba.

Kexa horiek alde batera utzita, *Iraumen* liburuak bi alderdi interesgarri dituela esango nuke. Metropoliari dagokiona da bat, hiri askotarikoaren amalgama den Iraumeri, hain zuzen ere. Iraume fikziozko hiri bat da; bertan jazotzen direnak hiri guztietan eta edozeinetan jazotzen dira, jazo daitezke:



'Iraumen'

Idazlea: Alexander Martinez Iturria.
Argitaletxea: Algaida.

hirien posibilitateak biltzen dituen fantasia bat da, funtsean. Horren inguruan biltzen dira ipuinetako gehienak.

Bigarren alderdia literaturari berari dagokio, liburuak biltzen dituen ipuinetako asko, guztiak ez esateagatik, beste ipuin batzuetarako atari baino ez baitira: ugari dira ipuinen baitako bigarren mailako kontakizunak. Tipula bat zuritzen den bezala irakur daiteke Martinezen lehen lan hau, bere geruzetan sakonerako eta kanpoalderako bidea eginez. Geruza horiek eraikitzen eta haien arteko mugak lausotzen trebe dela erakusten du Martinezek, eta askotariko istorioak ederto harilkatzen ditu. Nahiz eta, batzuetan, ia xaloki agerikoaren eta sinbolikotasun ilunaren arteko kontrasteak atmosfera bereziak sortzen dituen.

Fantasia idatzi dut izenburuan, eta Iraume fikziozkoari ere fantasia deitu diot, fantasiaz lepo baitago liburu hau, baina fantasia, liburu honetan, ez da fikzio errealistaren mugak hausten dituen fikzioa besterik, irudimenari konbentzioen mugak kendu eta sinbolismoa lehen mailan jartzeko aukera paregabea. Hori dela eta, pasarte ba-

tzuetan irakurketa zaila edo deserosoa suerta daiteke –irakurlearen ohituren eta gustuen arabera, betiere–. Hala ere, abstraktutik, sinbolikotik, metaliterariotik asko baldin badu ere, ez da azalkerietan galtzen Martinezek gaiei dagokienez, nahiz eta, batzuetan, zerbaiten falta sumatu dudana, fikziozko geruzen artean halabeharrez galtzen den zerbaitena, muga horiek hausteko narrazioei sendotasuna hartzen utziko ez balie bezala.

Literaturaz jarduten dute ezinbestean *Iraumen* bildumako ipuinek: ipuinak idazteaz, istorioak kontatzeaz. Fikzioari buruzko gogoeta esplizitu eta implizituak ere ez dira falta, errealtatearen eta fikzioaren arteko mugetan baitabilza liburu pertsonaia eta pertsonaia gure biltzen garen eran... Erreflexiboak ere badira askotan narrazioak, beren buruaz ari direlako, edo liburuaz ari direlako, zirkulua itxiz. Laburbiltzeko, hiriko eta periferiako biztanleei buruzko eta fikzioaren eta errealtatearen arteko mugetan buruzko gogoetak dakartzan Martinezek lehen lanean, kontzientzia literario nabarmena eta irajintza ambiziotsua erakutsiz.

Bizitzea da arterik gordinena

kideak idatzitako *Seher* (Eguntentia, 2018) ipuin bildumak Turkian 200.000 kopia saldu ditu jada, eta, PEN Translates sariari esker, ingelesezko itzulpena gogor sartu da Ingalaterrako eta AEBetako literatur merkatuetan. Demirtasen ipuinek Turkiako eta Ekialde Hurbileko jendearen gorabeherak azaltzen dituzte, maiz entzun gabe geratzen diren aho-tsak abiapuntzat hartuta.

Demirtasen liburuak izan duen arrakasta ikusita, Erdoganen gobernuak terroristen propagandaren erortzea leporatu die atzerriko argitaletxei. Beste modu batera ere interpreta daiteke Turkian zein Turkiatik kanpo kartzelako literaturak pizturiko interesa: literatura zinez erakarria dela. Sonmezen ustez, Turkiaren moduko herrialde politikoki nahaspilatu batean igarotako urteek sinesgarritasuna ematen diote intelektualek zein politikariek idatzitakoari. Agian azalkeia dirudi horrela esateak, baina Sonmezek zera esan nahi digu: literatura erresistentziarako artefaktu bat dela eta kartzelako literaturaren idazkuntza hura irakurtzeko tradizioa bezain sakona dela.

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero


Badira sorkuntza batzuz, sinpleena kontatuta ere, sakontasun muga ezina erakusten dutenak. Kontraesana dirudi sinpletasunak sakontasuna ekar leza keela baieztatzeak, baina halaxe da: egia irakurketa oinarritzeko ekintzen behaketa aurkitzen ditugu.

Album ilustratu honetan adiskidetasun istorio bat kontatzen zaitugu, nola eta zergatik hasten den Rafi eta Ki-ren arteko adiskidetasuna, nola garatzen eta denboran luzatzen den, mugagabeki.

Eta kontaketa xume honek aurrera egin dezan testuinguru bat erakusten zaigu, aurreiritzi eta oztopo sozialez betetako gizarte bateana, kemenez eta onginahiez gainditu beharrekoa. Erakusten zaigu itxurakeria eta jatorrasuna txan-

pon beraren bi aldeak direla, ba-koitzak erabakitzen duela zein modutan ekin bizitzari. Laburki esanda, *Lagun berriak* albumak zera erakusten du: bizitzan dauden oztopoak ezagutu eta gainditzeko giltzarriak zeintzuk diren.

Testua eraginkorra da, baina ilustrazio lanak goia jotzen du. Ilustrazioak eragin handia dauka istorio honen osaketan, kontatzen, tonua ezartzen (itxaropena, kementa...) eta arte gordinaren ikastaro azkar-eskergarria ematen.



'Lagun berriak'

Idazlea: Tomi Ungerer. **Ilustratzailea:** Tomi Ungerer. **Itzultzailea:** Aihnea Irazustabarrena. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.

Guraso onen neurgailua

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Ekidinezina da *Elmergoratzea* David McKee aipatzen dugunean. Itxaropena eta gogo askatasuna zabaltzeko duen abilitateagatik, haurren nahitaezko pausaleku bihurtu dira elefante koloretuaren abenturak. Horregatik bakarrik McKee ohorezko lekua merezi du gure bihotzetan. Beste-rik sortu ez balu ere.

Baina jarraitu du. Eta Beñaten istorioa oso desberdina da.


Haurra ezin dugu bakarrik utzi liburu hau irakurtzen. Izan ere, Beñaten istorioa honek itxaropen mezua gure esku uzten du. Salaketa gordina da. Haurrek etxeetan jasaten duten abandonu mingarri bezain egumerokoaren salaketa. Gurasoek Beñati kasurik egiten ez diotela salatzen.

McKee oso bizkorra da. Guraso

eta bitartekariak esaten digu: ea haurra bakarrik irakurtzen uzteko bezain doilorrak zarenen, ea Beñaten gurasoen antza ba ote duzuen!

Munstroak Beñat jan ondoren ere, konturatu ere ez direlako egin-ga, eta munstroa Beñat balitz bezala (ezaxolaz) tratatuko dutelako.

Ezinbestean bitartekariaren presentzia eskatzen du. Eta amaiera posibleak asmatu beharko ditugu, liburuak uzten duen tokitik aurrera. Eta haurrari hitzeman beharko diogu elkar goxatuko dugula, beti-beti.



'Orain ez, Beñat'

Idazlea: David McKee. **Ilustratzailea:** David McKee. **Itzultzailea:** Eva Linazasoro. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.